

Zalgize-Doneztebe

Aurkibidea

Udalerria: Zalgize-Doneztebe

Sarrera



Zuberoako Arbaila eskualdeko herria. 1843. urtean, Zalgize eta Doneztebe udalerriak batu eta bakarra osatu zuten. Herri hauek ditu mugakide: Mendikota iparraldean, Arrokiaga ipar-ekialdean, Barkoxe ekialdean, Ozaze-Zühara hego-mendebaldean eta Iruri hegoaldean. Irudian Zalgizeko eliza ageri da.

- **Biztanleak:** 163
- **Euskaldunak:** %59,35

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **6**

- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **39**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte

Hizlariak

Maitena Etchecopar (1922-2015)



Maitena Chabalgoity sortzez, laborari etxe batean sortu zen, Zalgizeko Jauregizaharren, 1922an. Ama Zalgizekoa zuen (Çugun) eta aita Zünharretakoa (Chabalgoity). Sei anai-arreba ziren: hiru neska lehenik eta hiru mutiko gero. Anai bat galdu zuten gaixotasun batek eramanik gerla denboran. Urte berean, haien aitak bere buruaz beste egin zuen bigarren gerla mundiala denboran (harek lehen gerla mundialan parte hartu zuen eta kolpatua itzuli zen). Laborari lanetan laket zen Maitena, eskolan ez. 1951an Erramun Etchecoparrekin ezkondu zen Irabarnen, eta 5 haur izan zituzten egarrekin. Laborariak ziren. Geroztik Irabarnen bizi izan zen. Elkarrizketatzailea bere biloba da.

Bettan Hoqui (1991)



1991ko barantailaren (otsailaren) 7an jaio zen, Donapaleun. Zalgize-Donzteben bizi izan da beti, eta bertakoak ditu gurasoak ere. Hiru senidetan zaharrena da; bi ahizpa gazteago ditu. Laboraria da lanbidez. [Joana](#) arrebarekin batera elkarrizketatu genuen, gurasoen etxean, eta hizkuntza kontuez, maskaradaz, pastoralaz, inguruko gazteen aisialdiaz eta beste hainbat konturi buruz hitz egin genuen. Aipagarria da Hoqui anaia-arrebek bultzatuta jokatu zuela hegoaldeko dantza talde batek lehen aldiz maskarada Zuberoan. Harreman hori nola egin zuten kontatzen du, arrebarekin batera.

Joana Hoqui (1992)



1992ko maiatzaren 16an Donapaleun jaioa, Zalgize-Donetzteben bizi izan da beti, eta bertakoak ditu gurasoak ere. Hiru senidetan bigarrena da; gazteagoa du ahizpa eta urte bat zaharragoa anaia. Tolosa Okzitanian laborantza ikasketak egiten ari da. [Bettan](#) anaiarekin batera elkarriketatu genuen, gurasoen etxean, eta hizkuntza kontuez, maskaradaz, pastoralaz, inguruko gazteen aisialdiaz eta beste hainbat konturi buruz hitz egiten du. Aipagarria da Hoqui anaia-arrebek bultzatuta jokatu zuela hegoaldeko dantza talde batek lehen aldiz maskarada Zuberoan. Harreman hori nola egin zuten kontatzen du, anaiarekin batera.

Marcel Queheille (1930)



Zalgizen sortua, Karrikartia etxean. Aita, Junes Queheille, Zalgizeko Bixixakia etxekoa zen, 15 haurride zituen. Ama Marie Algalarrando zen, Atharratzeko Ezkandan sortua eta haur zelarik Zalgizera bizitzera joana, hiru izebengana (Equioz zuten deitura), Ihitxartia etxera (Karrikartia ere beraiena zen). Aita hargin zen (gazterik hil zen, 50 urtetan) eta ama dendari. Marcelek arreba bat bazuen, Gaxusa. Marcel 14 urte arte herriko eskola publikoan egon zen eta ondotik bere osabarekin aprendiz sartu zen, maiasturu izateko. 18 urtetan CAP azterketa pasa zuen, baina armadara joan arte bere osabarekin egon zen lanean. Armadatik bueltan Luz Saint Sauveur aldean egin zuen urtebete. Zalgizera sartu zenean, 1953an bizikletari dedikatzea erabaki zuen. 1956-1963 urte artean profesional gisa aritu zen, lasterketa ospetsuetan, hara nola Frantziako itzulian 4 urtez. Haren izengoitia “le diable rouge” zen (deabru gorria). 1959an, Bordale-Baiona etapa irabazi zuen. Urte horretan Francettekin ezkondu zen, eta gero bi seme izan zituzten: Didier eta Bruno. 1963tik goiti ebanista bezala lan egin zuen eta bere enpresa sortu zuen Irurin.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxean euskaraz (ZDO-004/004)

Etxean euskaraz aritzen dira nagusiki, amak, asko jakin ez arren, aski ongi ulertzen duelako.

2. Pariseko kusinekin frantsesez (ZDO-004/006)

Euskaraz aritzeko joera dute Hoquitarrek, aurrean euskaraz ez dakienik egokitzen bada ere, baina, euskara ulertzen ez duen hura elkarriketari zuzenki loturik ez dela juzkatzen dutenetan, bistan da. Hala ere, Pariseko kusinak etxera datozkienetan, frantsesez gehixeago aritzeko indar egin behar izaten dute, Euskal Herriko beste hainbat etxetan gertatu ohi den bezalaxe.

3. Euskaraz noiz eta norekin (ZDO-004/008)

Bettan euskaraz mintzatu ohi da lanean, laborari gehienek, gurasoen adinekoak izaki, euskaraz baitakite Zalgizen eta inguruetan. Aisialdian, ordea, frantsesez mintzatzeko joera dute gazte gehienek, beti izaten baita tartean euskara entelegatzen ez duenik. Dantza-eskola, ordea, eremu euskalduna dute Zalgizen, euskaraz irakasten baita.

4. Euskararekiko atxikimentuarekin harrituta (ZDO-004/010)

Frantziako Tolosan egiten ditu Joanak laborantza ikasketak, eta hango lagunek ez dute sobera konprenitzen bertan ikasten ari diren euskaldunen euskararekiko atxikimentua.

5. Xiberura jin eta begiak zabaldu (ZDO-004/012)

Joanak Frantses estatuko ikaskide zenbait gomitatu izan ditu Xiberura eta etxean ostatu eman, eta behin herriko dinamikaz jabetu izan direnean, hobekiago ulertzen omen dute euskaldunok gure kulturarekiko dugun atxikimendua.

6. "Gasna saltzen" (ZDO-004/016)

Bettan gasna saltzen ari zen batean hegoaldeko bikote gazte bat gerturatu zitzairen. Joana ere tartean zen egun horretan, eta bikotearekin txantxetan ari zirela "sortu" zuten "gasna saltzen" erramoldea, dragatu adierazteko. Orain lagunarte hurbilean erabiltzen dute, txantxetan. Ez dakigu erramoldeak biderik egingo ote duen, baina...

7. Hainbat goitizen (ZDO-004/020)

Sortetxearen izena goitizen bilakatzeko joera bada Zalgizen eta inguruan. Gazteen artean, izenak laburtzeko joera ere bada. Eta ezizenak ezartzeko joera, aldiz, adin batetik gorako jendearen artean usatzen da gehien: artozanko, badalan...

8. Hitz larriak (ZDO-004/021)

Hitz larri, birao edo irainak baliatu behar izatekotan, frantseserako joera handiago du Joanak, Bettanek baino. Hala ere, Bettanek ere usatzen ditu, euskaraz, frantsesez, eta baita gaztelaraz ere; azken hauek, aitari entzunak.

9. Euskaldunen eta erdaldunen arteko gertaera barregarriak (ZDO-004/023)

10. Hika edo zuka aritzeko ohituraz (ZDO-004/026)

Hoqui anai-arrebek hika egiten diote aitari. Ohitura hori ez da euren inguruan batere zabaldua, eta eurek badakite izango dela joera hori begi onez ikusiko

ez duenik ere, baina aitzak ez die sekula kontrakorik egin dezaten esan, eta ohitura hori dute etxean. Joanak eta ahizpak hika egiten diote Bettani ere, baina Bettanek, ordea, arrebei zuka egiten die. Tratamenduen inguruko joera nagusiak zein diren aipatzen dituzte, halaber, pasarte honetan. Joanak, esate baterako, nahi luke gertuko neskekin noka jardun, baina haren esanetan, ez du behar beste ezagupen.

11. Xiberuan haurrek hika, txikitatik (ZDO-004/028)

Xiberuan zuka zein hika transmititzen zaie hurrei, txikitatik. Helduek itsusi atzematen dute haurrek ohiturazko tratamenduak erabili ezean.

12. Hika eta zuka eskutik beti (ZDO-004/031)

Xiberuan hika eta zuka eskutik doaz. Joanarentzat, esaterako, pentsaezina da anaiari zuka egitea, ez balitzateke zuzena. Hurrei batera irakasten zaizkie hika eta zuka Xiberuan. Gau eskoletan, aldiz, lehenik zuka irakatsi ohi da, eta ondoren hika.

13. Hika eta zuka, etxean zein ikastolan (ZDO-004/032)

Joana eta Bettan Donaixtiko ikastolan ikasiak dira, Nafarroa Beherean, eta han irakasle askok zuka egiten zieten. Hezkuntza soilik zuka jasotzen duenak nekez ikasten omen du gero hikaz xuxen mintzatzen. Xiberuko haur eskoletarako behar beste trebatutako irakasle atxematen ere ez omen da erraza.

14. Hika eta zuka ikastolan ikas daitezke (ZDO-004/034)

Ikastolan aski ongi ikas daiteke hika eta zuka mintzatzen, baina ezinbesteko baldintza da gero, era berean, euskarari eustea eskolatik kanpo ere, lagunartean, egunerokoan...

15. Euskara batua, itsusia baina praktikoa (ZDO-004/036)

Xiberuan ez dute izan Bettanek eta Joanak harrreman handirik euskara batuarekin, kolegioan ikasten aritutako denbora tarteak salbu. Ez dute batua sobera maite, baina aitortzen diote praktikotasunik. Hala ere, Bettan euskaldun bakoitza bere euskalkian mintzatzearen aldekoa da, hartara, denok ikasten dugu bestearenetik pittin bat.

16. Santutxuarrekin harremanetan (ZDO-004/037)

Bettanek eta Joanak hartueman dute Santutxuko Gaztedi Dantza Taldeko hainbat kiderekin, eta elkar ulertzeko izaten dituzten gora-beherez mintzo zaizkigu.

17. Testu idatzi gutxi xiberutarrez (ZDO-004/039)

Egun, oso jende gutxi egiten omen du xiberutarrez idazteko hauturik.

18. Jende zaharrarekin (ZDO-004/041)

Bettan konturatuta dago gazteak gero eta euskara pobreagoa darabilela, orohar; zaharrek mintzatzerakoan, ordea, bestela dira kontuak. Nafarroara joaten denetan ohartzen da horretaz Bettan.

19. Manexak (ZDO-004/044)

Xiberutarrez mintzatzen ez diren euskaldunei esaten diete manexak. Ez dute gutxiesteko esaten.

20. Kasualitatea eta santutxuarrek (ZDO-004/046)

Santutxuko Gaztedi dantza taldeko partaide batzuk xiberuan zebiltzan 2013an, maskarada ikustera joanak. Kasualitatez, Bettan eta Joana, maskarada jokatu berriak zirela, autoan hartu zituzten santutxuarrek. Kasualitatezko topaketa horretatik elkarrizketa bat sortu zen lehenik, eta egitasmo bat eta adiskidantza etorri ziren gero. Santutxuarrek maskarada jokatu zuten urte hartan Bilbon, eta Bettan eta Joana hura ikustera joan ziren. Segidan, maskarada bat xiberuan jokatu nahi ote zuten proposatu zieten Gaztedikoei, eta hauek, noski, onartu egin zuten proposamena; proposamena eta erronka, ordura arte inongo manexek ez baitzuen maskarada bat jokatu xiberuan.

21. Zalgiztarrek konbentzitu beharra (ZDO-004/047)

Zalgiztar guztiek ez zuten ongi hartu dantza talde bizkaitar batek maskarada Xiberun jokatzeko proposamena (2013ko kontuak dira); beldur ziren, artean ez baitzen sekula halakorik gertatu Xiberun.

22. Maskarada ez da deus ere herritarrik gabe (ZDO-004/048)

Azkenean, santutxuarrek maskarada jokatu ahal izan zuten Zalgizen, eta herritarrek harrera ezin hobe egin zieten. Herritarrek barrikadak egin zituzten, maskaradan ohikoa den gisan, eta santutxuarrek errespetu handiz jokatu zuten, arazorik batere ez zen izan. Egun ederra igaro zuten guztiek, baita gaua ere.

23. Maskarada zertan datzan (ZDO-004/050)

Bettan Hoquik azaltzen du maskarada zertan datzan.

24. Santutxuko "beltzak" (ZDO-004/051)

Santutxuko Gaztedi Dantza Taldeak maskarada jokatu zuen Zalgizen, 2013. urteko neguan, eta haien "beltzen" jarreraren berri ematen dute Bettanek eta Joanak. Bizkaitarrak izanagatik ere, xiberutarrez prestatu zuten predikua.

25. Pastoral zertan datzan (ZDO-004/053)

Joanak pastoral zertan datzan kontatzen du.

26. Gazteek maite dituzte maskarada eta pastoral (ZDO-004/055)

Gazteek maite dituzte maskarada eta pastoral. Besta egiteko parada dira, eta herritarrek elkartzeko (bai prestaketa lan zein jokatzeko egunez) aukera ezin aproposagoa eskaintzen dute.

27. Maskarada eta pastoral urguilu eta elkartasun iturri (ZDO-004/056)

Elkartasun eta urguilu iturri dira xiberun maskarada eta pastoral. Garai batean, herrietan jende gehiago bizi zelarik, hautatutako jendeak hartzen

zuen parte, pastoralean, behintzat. Egun hori aldatu egin da. Egun herri guztiak hartzen du parte.

28. Hizkuntzaren pisua maskaradan eta pastoralean (ZDO-004/059)

Euskararen presentzia nabarmena da maskaradan zein pastoralean, baina Bettanek eta Joanak azpimarratu egiten dute handiak edo helduak zenbateraino diren maskaradan txikieneen eredu, baita hizkuntza kontuetan ere.

29. Zalgize inguruko herrien berezitasunak (ZDO-004/061)

Bettanek Zalgize inguruko herrien berri ematen du, umorez. Esate baterako, "Barkoxe beti haboroixe" esaera. Joanak kultur ikuspegitik pisu berezia duten herriak aipatzen ditu.

30. Xiberu "safari" (ZDO-004/065)

Kanpotarrek Xiberuaz duten ikuspegiak mintzo dira Bettan eta Joana, umorez.

31. Lehen hitza euskaraz (ZDO-004/066)

Bettanek laket du Hegoaldera joatea, euskaraz nanahi eta normahirekin egiteko ohitura zabalduago dagoela baitio.

32. Arrotzarekin erdaraz (ZDO-004/069)

Xiberun kosta egiten da lehen hitza euskaraz ematen, eta parekoarekin konfiantzarik ez duen hiztun askok frantsesez mintzatzeko ohitura omen du, elkarren arteko distantziak mantentze aldera, hiztun biak euskaldunak izanik ere. Joera horiek, ordea, gutxitzen ari omen dira, geroz eta gutxiago baitira Xiberun euskara dakiten gazteak.

33. Frantsesez hasi eta euskaraz bukatu (ZDO-004/070)

Joanak eta Bettanek kontatzen dute lagun batekin bizi izan zuten hizkuntza bilakaera.

34. Euskaraz gaizki egiteko beldur (ZDO-004/071)

Gazte asko euskaraz gaizki egiteko beldur ibiltzen omen da, euskaldun zahar askok ez duelako begi onez ikusten euskaraz akatsik egin gabe mintzo ez den jendea. Joanak joera horren gaineko pasadizo umoretsua kontatzen du.

35. "Mila pitz" telebista jokoa (ZDO-004/073)

Euskara sustatzeko ekimena: "Mila pitz" telebista jokoa.

36. Xiberun beti kantuan (ZDO-004/077)

Oso kantu zalea da Xiberua. Jendea etxean trebatzen da, baina baita bestetan, kalean, tabernen zein elizan ere. Kantu zaharren ezagutza, ordea, jaisten ari dela sumatzen du Joanak.

37. Kultur kontsumoa (ZDO-004/079)

Kulturari dagokionez, musika entzutea da Bettanek eta Joanak gehien maite dutena. Entzuten dituzte hegoaldeko taldeak ere, baina pastoral zaharretako kanten zintak entzutea ere maite dute dute zinez. Barkoxeko partoral zahar bat da haien kuttuna.

38. Pastoraletako kanthoreak (ZDO-004/081)

Pastoraletako khantoreei buruz ari dira Joana eta Bettan, eta sujetari buruzko jakingarririk ere eskaintzen dute.

39. Euskararen aldeko jarrera (ZDO-004/083)

Xiberun sumatzen du Joanak euskarari eusteko eta hura bultzatzeko borondatea, bertako biztanleen artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com